




LARRABETZU



LARRABETZUKO UDALERRIKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2015-2017



2014ko abendua

Aurkibidea

Sarrera	1
Planaren diseinua	2
Plan Estrategikoa 2015-2017	
Taulen azalpen-eranskina	3
1.1. Familia transmisioa	4
1.2. Irakaskuntza	5
1.3. Euskalduntzea-Prestakuntza	6
2. Arlo sozioekonomikoa	7
3. Aisia eta kirola	8-9
4. Kulturgintza	10-11
5. Larrabetzu orokorrean	12-13



SARRERA

Hizkuntzaren normalizazioan aurrera egin bidean, Larrabetzuko Euskararen Plan Estrategikoa (2015-2017) hizkuntza politika egiten diharduten herri-aginteei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarrizko tresna da.

Hurrengo Euskararen Plan Estrategikoa Larrabetzuko Udalak Ahize-ak aholkularitzari egindako eskaeraren emaitza da. Maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskaraz bizi gura duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea du xede.

Azken urteotan ugariak izan dira Euskararen Plan Estrategikoa diseinatzeko eta herri mailako neurriak adosten hasteko beharrezana ikusi duten eragileak (eskolako guraso zein irakasleak, Udala, euskara elkarteak, herritarrak...). Herriko euskara erabileraren gaineko pertzepzio orokorraz gain, beste hainbat iturri ere izan dira kezka horren abiapuntu: 2011n soziolinguistika klusterrak eginiko kale neurketa, datu soziolinguistikoak (2011), herriko eskolaren diagnostikoa...

Euskaren Plan estrategikoa diseinatzeko funtsezkoa eta ezinbestekoa izan da udalerriko hainbat arlotako eragileen parte-hartzea; izan ere, eurekin izandako elkarrizketen eta Euskararen Aholku Batzordeko parte hartzaileen ekarpenen emaitza da eskuartean duzun dokumentua.



PLANAREN DISEINUA

Hurrengo planaren oinarria Eusko Jaurlaritzaren eskutik jasotako ESEP markoa da, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. ESEP markoa 2012ko uztailaren 24an onartu zuen Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak; 2013ko irailaren 11n berretsi zuen Legebiltzarrak.

Planaren indarraldia hiru urtekoa izango da, 2015etik 2017ra, V. plangintza-aldiko epeen barruan.

Larrabetzuko eskualde (Txorierri) mailako Euskara Plana du. Hala ere, Larrabetzuko Udalak beharrezko deritza esparru batzuk babestu eta indartzeari. Horregatik, Euskararen Plan honek lehentasunezko lau esparrutan eragin nahi du: transmisioa, irakaskuntza eta euskalduntzea; arlo sozioekonomikoa; aisia eta kirola; eta kultura. Era berean, herri mailako esparru orokor bat ere kontuan izan da.

Lehendabizi Larrabetzuko euskararen egoera aztertuz ebaluazio-diagnostiko txostena osatu da. Horretarako, azterketa kualitatitabo (eragile zein herritarrei aurrez aurreko elkarrizketak...) zein kuantitatitabo (Inkesta soziolinguistikoa emaitzak 2011, Erabileraren kale-neurketa -Soziolinguistika Klusterra, 2011- ...) egin da.

Bestalde, arestian aipatutako esparruetako eragileek hiru Euskararen Aholku Batzordetan parte hartu dute, eta beraien ekarpen eta iritziekin elkarlanean osatu da Plan Estrategikoa.

Helburu Estrategikoa	Esparruak ESEP	Esparruak LARRABETZU	Zeharlerroak			
Euskararen Jabekuntza	Familia bidezko transmisioa	Transmisioa, irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea	Arnasguneak	Komunikazioa	Euskalduntzea, erabilera ohiturak, prestigioa	Euskaldunon sarea
	Irakaskuntza					
	Euskalduntze-alfabetatze					
Euskararen Erabilera	Administrazioa (Erabilera plana)	Larrabetzu orokorrean				
	Gune geografiko euskaldunenak	Arlo sozioekonomikoa				
	Arlo sozioekonomikoa	Aisia eta kirola				
Euskararen Elikadura	Aisia eta kirola	Kulturgintza				
	Liburugintza	Larrabetzu orokorrean				
	Kulturgintza					
	Publizitatea					
	Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea					
	Hedabideak					
Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak						

Larrabetzuko Euskararen Plan Estrategikoa (2015-2017)

Taulen azalpen-eranskina

Helburua	Euskara sustatzeko ekintza planaren helburu nagusia da.
Helburu estrategikoa	Euskara sustatzeko ekintza planaren helburu estrategikoa da. Guztira, hiru dira.
Neurria	Esparruari loturiko helburu zehatza islatzen du.
Ekintza	Dagokion neurria garatzeko proposatzen den egitasmo edo programa jakina da.
Lehentasuna	Lehentasunak finkatzeko, proposatzen den garrantziaren arabera Sailkapena da. Hiru dira erabilitako parametroak: ertaina (3 zenbakia eta kolore gorria), ertain-handia (2 zenbakia eta kolore laranja) eta handia (1 zenbakia eta kolore berdea).
Kronograma	Neurri eta ekintza hori Plan Estrategikoko zein urtetan egin behar den adierazten du.
Eragileak: arduradun, aliantza, lankidea	Zehaztutako neurria betetzeko orduan ardura edota parte hartzea izango duen erakunde edo eragile publiko zein pribatua da.
Xede Taldeak	Esparruan eragin beharreko edo garrantzitsua den pertsona edota taldea da. Adibidez: gurasoak, begiraleak, Udala, koadrilak, kirol taldeak, erakundeak ...

Helburu estrategikoa	Esparrua	FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA						
	Helburua	Helduen artean familia bidezko transmisioak duen garrantzia ezagutaraztea eta transmisioa bermatzeko eredu bihurtzea.						
	Neurria	Ekintza	Lehent asuna	KRONOGRAMA			Eragileak: arduraduna, aliantza, lankidea	Xede taldeak
				2015	2016	2017		
EUSKARAREN JABEKUNTZA	1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea	1.1.1. Herritarren artean euskara erabiltzearen aldeko jarrera lantzea.	1	✓	✓	✓	Eskola, guraso elkarteak, gurasoak, Udala	Herritarrak, Koadrilak, gurasoak
		1.1.2. Euskararen erabilerarako dauden guneak baliatzea.	2	✓	✓	✓	Mankomunitatea, Udala	Gurasoak, familiak, umeak, gazteak
		1.1.3. Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea.	2	✓	✓	✓	Mankomunitatea, Udala, eskola, guraso elkarteak	Gurasoak, familiak, umeak, gazteak
		1.1.4. Gurasoengan eragitea euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen.	1	✓	✓	✓	Guraso elkarteak, mankomunitatea, eskola, Udala, gurasoak	gurasoak eta gurasogaiak
		1.1.5. Gurasoak eredu: Bikote euskaldunen zein mistoen kasuan, seme-alabekiko hizkuntza-jokabideak lantzea.	1	✓	✓	✓	Guraso elkarteak, mankomunitatea, eskola, Udala, gurasoak	gurasoak, gurasogaiak eta seme-alabak
		1.1.6. Guraso, gurasogai eta aitite-amamengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko.	2	✓	✓	✓	Guraso elkarteak, mankomunitatea, eskola, Udala, gurasoak	gurasoak, gurasogaiak, amama-aititak, eta seme-alabak
	1.2. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea	1.2.1. Familia bidezko transmisioa sendotu dezaketen hizkuntza-ohitura eredugarriak identifikatu eta sustatzea.	1	✓		✓	Eskola, guraso elkarteak, gurasoak, Udala, mankomunitatea	familia bere osotasunean
		1.2.2. Familia, eskola eta ingurunearen arteko elkarreragina sendotzea, gurasoei horretarako baliabideak eskainiz.	1	✓	✓	✓	ikastetxea zein guraso elkarteekin elkarlanean.	gurasoak, gurasogaiak, amama-aititak, umeak, gazteak

Helburu estrategikoa	Esparrua	IRAKASKUNTZA						
	Helburua	Umeen artean eskolan zein eskolaz kanpo euskara ohiko hizkuntza funtzionala izatea.						
	Neurria	Ekintza	Lehent asuna	KRONOGRAMA			Eragileak: arduraduna, aliantza, lankidea	Xede taldeak
				2015	2016	2017		
EUSKAREN JABEKUNTZA	2.1. Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea	2.1.1. Gizarte, hezkuntza, aisia/kirola eta kultur taldeekiko loturak sendotzea.	1	✓	✓	✓	Institutua, eskola, Udalak, mankomunitatea, Hori bai	12-18 nerabeak Helduak
		2.1.2. Gazteekin lidergoa lantzea	1	✓	✓	✓	Institutua, eskola, Udalak, mankomunitatea, Hori bai	Gurasoak Irakasleak
	2.2. Sentsibilizazio eta motibazioa	2.2.1. Herritarrei euskarazko eskolaz kanpoko prestakuntza zerbitzuez informazioa ematea.	3	✓	✓	✓	Udala, eskola, mankomunitatea,	gurasoak, gurasogaiak, helduak 10-12 urte
		2.2.2. Eskolako atsedendietan umeen euskararen erabilera areagotzea.	1	✓	✓	✓	Eskola, guraso elkarteak, Udala, mankomunitatea	2-12 umeak

Helburu estrategikoa	Esparrua	EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA						
	Helburua	Herritarren artean euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko baliabideak eskaintzea.						
	Neurria	Ekintza	Lehentasuna	KRONOGRAMA			Eragileak: arduraduna, aliantza, lankidea	Xede taldea
				2015	2016	2017		
EUSKAREN JABEKUNTZA	3.1. Finantzazio sistema egokitzea	3.1.1. Premiei malgutasunez erantzuteko finantzazio sistema egokitzea. Eta dagokionean diseinatzea.	1	✓	✓	✓	Mankomunitatea, Udala	Ikasleak
	3.2. Euskaltegitik kanpoko egitasmoak sustatzea	3.2.1. Erabilera eta praktika uztartzea. Mintzapraktika egitasmoak zabaltzea.	2	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, elkarteak, euskaltegiak, Berbalagun, eskola, guraso elkarte	Ikasleak, herritarrak
	3.3. Sentsibilizazio eta motibazioa	3.3.1. Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea.	1	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea eta euskaltegiak	Ikasleak
		3.3.2. Euskara eta elkarbizitza lotuko dituzten mezuak eta ekimenak sustatzea.	1	✓	✓	✓	Udala	Herritarrak, ikasleak

Helburu estrategikoa	Esparrua	ARLO SOZIOEKONOMIKOA						
	Helburua	Merkatari, ostalari eta kontsumitzaileengan eragitea merkataritza eta ostalaritza zerbitzuetan euskara era naturalenean erabil dadin.						
	Neurriak	Ekintzak	Lehent asuna	KRONOGRAMA			Eragileak: arduraduna, aliantza, lankidea	Xede taldeak
2015				2016	2017			
EUSKAREN ERABILERA	4.1. Hizkuntza eskubideak bermatzea	4.1.1. Merkatarari, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak (adb: hizkuntza hautua) bermatzeko neurriak hartzea	1	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, merkatarariak, Euskaltegiak	Merkatarariak, tabernariak, kontsumitzaile eta erosleak
	4.2. Euskara merkataritzan erabiltzeari prestigioa ematea	4.2.1. Sustapen eta komunikazio ekintzak lantzea. Euskara erabilera egoki batek dakartzan onurak azpimarratzea: balio erantsia, zerbitzu kalitatea, lehiakortasuna, herri ongi-izatea.	1	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, merkatarariak, gurgipide	Merkatarariak, Tabernariak, gurgipide, gazteak, koadrilak, kontsumitzaile eta erosleak
	4.3. Sentsibilizazio eta motibazioa	4.3.1. Denda eta tabernen irudia euskalduntzea. Errotulazio finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jartzea.	1	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, merkatarariak, gurgipide	Merkatarariak, tabernariak, kontsumitzaile eta erosleak



Helburu estrategikoa	Esparrua	AISIA eta KIROLA						
	Helburua	Aisia eta kiroleko jarduna euskaraz izan dadin bermatzea.						
	Neurriak	Ekintzak	Lehent asuna	KRONOGRAMA			Eragileak: arduradun, aliantza, lankide	Xede taldeak
				2015	2016	2017		
EUSKAREN ERABILERA	5.1. Aisialdi eta kiroleko harreman informaletan euskararen presentzia, erakargarritasuna eta erabilera indartzea	5.1.1. Tabernetan, futbol zelaietan, frontoian, plazan... harreman informalak euskalduntzea	1	✓	✓	✓	Udala, merkatariak, koadrilak, elkarteak	Gazte koadrilak, heldu koadrilak, tabernariak, kirolariak, elkarteak
		5.1.2. Umeen jolasteko hizkuntza ohiturak euskara hutsean izatea	1	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, eskola, guraso elkarteak, kukubel, ludoteka	Umeak
		5.1.3. Gazteen artean euskararen irudia hobetu (prestigiatu) eta indartzea.	1	✓	✓	✓	Mankomunitatea, Udala, elkarteak	gazteak eta nerabeak
		5.1.4. Nerabeekin elkarlana sustatzea.	2	✓	✓	✓	Mankomunitatea, Udala, elkarteak	gazteak eta nerabeak
		5.1.5. Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz, euskarazko ekimenak adin tarte guztietako herritarrei zuzentzea.	1	✓	✓	✓	Udala Mankomunitatea Kultur eta kirol/aisia elkarteak Kultur etxea	Gazte koadrilak Heldu koadrilak Herritarrak Umeak

Helburu estrategikoa	Esparrua	AISIA eta KIROLA						
	Helburua	Aisia eta kiroleko jarduna euskaraz izan dadin bermatzea.						
	Neurriak	Ekintzak	Lehent asuna	KRONOGRAMA			Eragileak: arduradun, aliantza, lankide	Xede taldeak
				2015	2016	2017		
EUSKAREN ERABILERA	5.2. Begirale/ monitore/ entrenatzaileen prestakuntza eta eredugarritasuna sendotzea	5.2.1. Hizkuntza gaitasunak hobetzea, batetik; eta lantzea, dagokion xede taldearen erabileran eragiteko.	2	✓	✓	✓	Udala, aisia eta kirol elkarteak, mankomunitatea	Entrenatzaileak, gazteak
		5.2.2. Aisialdiko ekimenetara bideratzen diren begiraleen kontratazioetan hizkuntza-irizpideak aztertzea eta txertatzea.	3	✓		✓	Udala, mankomunitatea, elkarteak, begiraleak	Begiraleak, elkarteak
	5.3. Euskararen kalitatea zaintzea	5.3.1. Aisialdi eta kirol ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea. (diru-laguntzen kudeaketa)	3		✓	✓	Elkarteak, Udala	Elkarteak oro har, herritarrak, gazteak, kirolariak
	5.4. Kirola eta aisian erakargarriak diren jarduera, ekintza eta zaletasunetan euskarazko eskaintza hobetzea eta horren eskaera sustatzea	5.4.1. Kirol-arloan euskararen erakargarritasuna landu eta era egokian proiektatu eta hedatzea.	1	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, elkarteak	Herritarrak, kirolariak, gazteak
	5.5. Sentsibilizazioa eta motibazioa	5.5.1. Aisialdi eta kirol taldeekin lankidetzat, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.	1	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, elkarteak	Elkarteak, herritarrak
		5.5.2. Helduentzako prestakuntza antolatzen dutenengan eragitea, ikastaroak eta ekintzak euskaraz ere antolatzeko.	1	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, elkarteak, erakundeak	Helduak eta nagusiak



Helburu estrategikoa	Esparrua	KULTURGINTZA ETA LIBURUGINTZA						
	Helburua	Euskarazko kultura indartu eta herritarrak erakartzea.						
	Neurria	Ekintza	Lehentasuna	KRONOGRAMA			Eragileak: arduraduna, aliantza, lankidea	Xede taldeak
				2015	2016	2017		
EUSKARAREN ELIKADURA	6.1. Euskarazko kultura produktuen kontsumoa sustatzea	6.1.1. Euskarazko kultura ekoizpenak kontsumitzeko pizgarrien sistema bat eratzea.	1	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, topagunea	Herritarrak oro har
		6.1.2. Elebidun pasiboak erakarri kultur arlotik.	1	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, elkarteak	Herritarrak oro har
	6.2. Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea	6.2.1. Sorkuntza sustatzeko egitasmoak bultzatzea, abian jartzea edota indartzea.	2	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, eskola, guraso elkarteak	Herritarrak oro har
	6.3. Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea	6.3.2. Kultura agenda sarean zabaltzea. Erakundeen arteko elkarlana sendotzea.	2	✓	✓	✓	Elkarteak, Udala, mankomunitatea	Herritarrak oro har
		6.3.3. Herri eta eskualdeko komunikabideak babestu eta laguntzea.	2	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea	Herritarrak oro har

Helburu estrategikoa	Esparrua	KULTURGINTZA ETA LIBURUGINTZA						
	Helburua	Euskarazko kultura indartu eta herritarrak erakartzea.						
	Neurria	Ekintza	Lehent asuna	KRONOGRAMA			Eragileak: arduraduna, aliantza, lankidea	Xede taldeak
				2015	2016	2017		
EUSKARAREN ELIKADURA	6.4. Irakurzaletasuna bultzatzea	6.4.1. Herriko liburutegian helduentzako euskarazko liburuen presentzia handitzea.	2	✓	✓	✓	Udala, Eusko Jaurlaritza, herritarrak	Helduak
		6.4.2. Irakurleen klubak bultzatzea.	1	✓	✓	✓	Udala	Haur, gazte eta helduak
		6.4.3. Batez ere haur eta gazteei begirako liburu zein kultura produktuen euskarri berriak sustatzea.	3	✓	✓	✓	Udala, elkarteak	Haur eta gazteak
	6.5. sentsibilizazioa eta motibazioa	6.5.1. Etorri berriei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak, euskarazko kultur jarduerak kontsumitzera animatzeko.	2	✓	✓	✓	Eskola, umeak, Udala, guraso elkarteak	Helduak, umeak, nerabeak
		6.5.2. Euskarazko kultur produktuen sorkuntza eta kontsumoa bultzatzeko komunikazio-ekintza eraginkorrek erabiltzea.	2	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea	Gazte eta helduak
		6.5.3. Herritarrengan eragitea euskal kultura, kondairak eta toponimiaren ezagutzaren bitartez.	2	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, elkarteak, adituak	Herritarrak oro har
		6.5.4. Kultur eskaintzan parte hartzen duten eragile guztiengan eragitea	2	✓	✓	✓	Udala, elkarteak	Herritarrak oro har



LARRABETZU



Helburu estrategikoa	Esparrua	LARRABETZU OROKORREAN						
	Helburua	Larrabetzuko herritarrak maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskaraz bizi daitezen aukerak bermatzea. Horretarako Udalak norbanakoak eta espazioak euskalduntzeko beharrezkoak diren neurriak erabaki eta baliabideak eskura jarriko ditu.						
	Neurria	Ekintza	Lehent asuna	KRONOGRAMA			Eragileak: arduradun, aliantza, lankidea	Xede taldeak
				2015	2016	2017		
EUSKARAREN ERABILERA ETA ELIKADURA	7.1. Barruko eta kanpoko proiektzioa oro har indartzea	7.1.1. Harreman sareak sendotu eta elikatzea.	3	✓	✓	✓	Elkarteak, herritarrak eta Udala	Herria
		7.1.2. Eskualde mailako elkarlan zubiak eraiki	3	✓	✓	✓	Institutua Mankomunitatea	Gazteak, herritarrak
	7.2. Lidergo indibidualetik elkarteen konpromisora eta erakundeen babesera	7.2.1. Norbanakoa, herritar-taldea, elkarteak eta politika(k) norabide berean aritzea	1	✓	✓	✓	Herritarrak Koadrilak Udal ordezkariak Elkarteak	Herritarrak Koadrilak Udal ordezkariak Elkarteak
	7.3. Herritarren eragina duten eragile orok euskararen erabileraren inguruko kezka barneratua izatea.	7.3.1. Euskararen aldeko diskurtsoa barneratzea.	2	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, elkarteak, norbanakoak	Eragileak, herritarrak
		7.3.2. Eragileen arteko elkarlana sustatzea.						
		7.3.3. Eragile eredugarrien lana aitortzea.						
	7.4. Administrazioaren eraginpeko zerbitzu guztietan euskararen erabilera egokia bermatzea	7.4.1. Proiektzio publikoa duten zerbitzuak kontratatzerakoan, jarduera publikoetarako baimenak ematerakoan edo administrazioaren instalazioen erabileraren lagapena egiterakoan euskara egokitasunez erabiliko dela bermatzea.	3	✓		✓	Udala, mankomunitatea	Herritarrak
	7.5. Euskararen kalitatea zaintzea	7.5.1. Adierazkortasuna, kalitatea eta zuzentasuna, bereziki gazte eta umeen hizkeran, zaindu eta indartzeko ekimen zehatzak abian jartzea.	2	✓	✓	✓	Herritarrak oro har	Herritarrak
7.5.2. Herriko hizkera zaindu eta euskara batuarekiko zubiak lantzea.		1	✓	✓	✓	Herritarrak oro har	Herritarrak	

Helburu estrategikoa	Esparrua	LARRABETZU OROKORREAN						
	Helburua	Larrabetzuko herritarrak maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskaraz bizi daitezen aukerak bermatzea. Horretarako Udalak norbanakoak eta espazioak euskalduntzeko beharrezkoak diren neurriak erabaki eta baliabideak eskura jarriko ditu.						
	Neurria	Ekintza	Lehent asuna	KRONOGRAMA			Eragileak: arduradun, aliantza, lankidea	Xede taldeak
				2015	2016	2017		
EUSKARAREN ERABILERA ETA ELIKADURA	7.6. Sentsibilizazioa eta motibazioa	7.6.1.Larrabetzun euskararen ezagutza maila igotzea.	2	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea	
		7.6.2. Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan. Sakelakoetan, tabletetan, gainerako tresnetan eta sarean(jaso zein elikatu) aplikazioak, menuak, kontsultak, mezuak, etab. euskaraz izan daitezen.	2	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea	Gazteak, nerabeak, helduak
		7.6.3. Ekintza eta neurri eraginkorrak antolatzea herri osoa hizkuntzaren egoeraz jabeatzeko.	1	✓	✓	✓	Herritarrak oro har	Herritarrak oro har
		7.6.4. Erdaldunak euskarara erakartzea.	2	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, herritarrak	Erdaldunak
		7.7.5. Herriko hizkera prestigiatzea.	1	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, elkarteak, herritarrak	Herritarrak
	7.7. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzea eta garatzea.	7.7.1. Etorri berriei bereziki zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatzea, euskara ikasteak ekar diezazkiekeen onurak azpimarratuz.	1	✓	✓	✓	Udala, eskola	Herrira heldu berriak
		7.7.2. Gazteengan eragitea adin talde horietarako erreferente diren pertsonengan oinarrituta.	1	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, gazte eredugarriak, Hori bai	Gazteak
		7.7.3. Motibazioaren alderdi guztiak kontuan hartu eta lantzea tailerren edo hitzaldietan: motibazio praktikoa, motibazio sinbolikoa eta motibazio kulturala.	2	✓	✓	✓	Udala, mankomunitatea, elkarteak, herritarrak	Herritarrak
		7.7.4. Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunak elkarlanean antolatzea.	1	✓	✓	✓	Herritarrak, Udala, mankomunitatea	Herria



Bazterrak euskaraz blaitzen saia gaitzen, euri-txikiak ia konturatu gabe bustitzen gaituen bezala, gauza txikien bitartez, mezu ugari izan ditzagula inguruan, helburu "handi" hori betetzeko bidelagun. Etengabeko blaitze lana.

Euskararen Aholku Batzordeko partaidea: **Miren**

